



'Muxu gazia' izenez ere ezagutzen da Fibrosi Kistikoa. Gaixotasun genetiko larri bat da, eta arnasketa eta digestio aparatuan eragiten du, bereziki. Ez da oso gaitz ohikoa: 5.000 jaiotzetatik bakarrak baino ez du izaten; horregatik, gaixotasun arrarotzat dute adituek. Gaixotasun larri hori duten lagunei eta euren senideei laguntzeko helburuarekin sortu zen Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarte. Gaixoek, haien senideek eta haiekin lan egiten duen boluntario kuadrillak osatzen dute elkarte, eta euren asmo nagusia da gaixotasuna antzeman dien gaixo berriei eta haien familiei laguntzea eta gaixotasunaren inguruan beharrezko duten informazio guztia helaraztea. Informazioa emateaz gain, baina, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu elkarteak: arnas fisioterapia —hilean bi aldiz fisioterapeuta profesionalak gaixoaren etxeetara joaten dira zerbitzua ematera—; entrenatzaile baten eskutik, gaixoaren egoera fisikoa mantendu eta hobetzeko zerbitzua; arreta psikologikoa. Gaixotasun larri hau ahalik eta lasterren antzematea oso garrantzitsua da, gaixoaren bizi kalitatea hobetzen laguntzen duelako. Horregatik, diagnostiko goiztiarra egiteko lan egiten dute mediku espezializatuekin. Arnas fisioterapia zerbitzua egunean bi aldiz emateko finantziazioa bilatzea ere bada elkartearen helburua, eta baita erakundeen inplikazioa bilatzea ere. Elkarte sortu zenetik, profesional eta lan talde handia izan dute lagun. Hainbat jarduera edo ekintza ere egin dituzte, euren lana gizarteratzeko.

Ondarroan ere gaixotasun hau duen gazte bat dago eta bere gurasoak zubi lana egiten dute talde honen eta udalerriko batzordearen artean. Horrela, gure herrian ere lana bistaratu eta gizarteratzeko ezinbesteko lana egiten da.